

HARREMAN SOZIALAK HAURTZAROAN

Berdinkideekin sozializazioa, hau da, lehenengo lagunak, funtsezkoa eta ordezkazina da ondoren garapen ona eta egokitzapena izateko. Horrek ez du esan nahi beti beste haurrez inguratuta egon behar duenik, bakarrik jolas egiten ere jakin behar baitu haurrak.

Horregatik, oso prozesu garrantzitsua da gizarteratzea, txiki-txikitatik sustatu beharrekoa. Umek harreman egokiak izaten ikasi behar dute, besteekin arazorik gabe bizitzeko, berdinkideak izan, nahiz helduak izan. Gainera, nahiz eta trebetasun sozialak bizitzan zehar alda daitezkeen, garapenean zehar heldutasuneko jokabideen oinarriak ezarriko dira.

Gizakiok jaiotzen garenetik bilatzen ditugu harremanak eta afektuzko loturak garatzen goazen heinean; lotura horiek heldu gisa definituko gaituzten ezagutzez eta trebeziez jabetzeko oinarria eraikiko dute. Hori horrela izan dadin, beste pertsonen nahiz egoera sozial desberdinen eragina behar da, elkarrekintza prozesu bat dela kontuan hartuz.

Era honetara, umeak hiru urte betetzen dituztenean hasten dira, gutxi gorabehera, besteekin harremanetan jartzeko beharra sentitzen. Lehen unetik, familia izango da garatzeko eta gizarteratzeko erreferentzia-testuingurua. Ondorioz, etxean hasten dira harreman sozialak, guraso nahiz anai-arrebekin/ neba-ahizpekin.

Sei urteen bueltan, aldakorrak izaten dira adin txikikoaren harremanak, ez dira ez iraunkorrak, ez estuak izaten. Bederatzi urteen bueltan finkatuko dira harremanak, une horretan egonkorragoak direlako kideen aukeraketa nahiz taldeen osaera, eta umea emozionalki inplikatzeko delako.

Baina jakina, umek badituzte bestelako harreman-moduak ere. Izan ere, berez hasiko dira beste umekin harremanak izaten, plazan edo parkean, esaterako. Egoera horietan jarriko dituzte praktikan lehen aldiz euren trebetasun sozialak, jolasen bidez, normalean.

Bestalde, eskola beste erdibide bat da, senitartekoak ez diren helduekin harremanetan jartzeko aukera ere ematen duena, eta estimulazio sozial nahiz intelektual garrantzitsua emango diote adin txikikoari. Horrez gain, berdinkideekin harremanetan hasiko dira, hasiera batean, jolasteko baino ez, baina gutxika-gutxika, harreman eta lotura hauek pertsonalagoak izango dira.

LABURPENA

Lehen haurtzaroan ematen da gizarteratze prozesurik indartsuena, gizakiak aro horretan baitu ikasteko gaitasunik handiena. Familiako hezkuntza ereduak haurraren garapen pertsonalean eragina duela jakin arren, argi dago eragin hori ez dela sinplea eta ez dela haurraren garapeneko eraikuntzan eragingo duen bakarra. Sozializazioaren bidez, pertsonak inguruneko elementu soziokulturalak aintzat hartzen ditu eta gizartera moldatzeko, elementuok norberaren pertsonalitatean txertatzen ditu.

ETXADI

Familia-Psikologia Unibertsitate-Zentroa
Centro Universitario de Psicología de la Familia